

arean, etorkizunari begira

▼ mikel martinez

dituzte, errealitatean. Ikasleek, ordea, beste iritzi bat dute. Pazientziaz beteta hasi dituzte klaseak, eta ikasitakoa baliagarria izango zaiela baieztatzen dute behin eta berriz: «Akaso ez dugu inoiz zineman lanik egingo, baina ikasitako guztiak balioko digu».

Ikerne Goikoetxea Mungiakoa da, eta dantzaria da berez, baina aktore

lanak ere egin izan ditu azken hiru urtetan. Elkarriketa egin genion egunean sekuentzia bat

grabatu behar izan zuen. Kamera aurrean askotan izandakoa da Ikerne, baina ez aktore gisa: «Zineman Ramon Barearekin aritu nintzen *Malvaloca*-n. Gero film laburrak egin ditut, eta kamerarekin kontaktua badut, dantzan egiten dudalako. Espainiako Estatuko kate guztietan egin dut dantzan: Tele 5, Antena 3, orain TVE1, TVE2, eta orain ETBko *Euskaraoke*-ko koreografa lanetan ibiltzen naiz. Orduan zinema ikastea erabaki nuen, oso ezberdina baita antzerkiaren aldean. Ez da-

go kontakturik publikoarekin, kamera bat duzu aurrean. Irizpide ezberdin asko hartzen dira kontuan», esan du.

Rosa Martinez aldiz durangarra da, eta Ikernerren ondoan dago. Geroa antzerki taldean 14 urtez jardundakoa da Rosa. «Oso gaztetxo hasi nintzen aktore lanetan antzerkian, eta 18 urte nituela profesional gisa sartu nintzen

Geroan. Orain bi urte arte horretan jarraitu nuen, baina orain zinema munduaren berri jakiteko grina dut. Orain, lehen aldiz, zinema ukitu nahiko nuke; horregatik etorri


naiz». «Ikastaroa egiteak ez du esan nahi zineman lan egingo dugunik. Akaso ez dugu balioko horretarako, edo ez zaigu gustatuko; nork daki! Baina, hala ere, baliagarria izango zaigu», dio Rosak.

Zinema versus antzerkia?

Zinema eta antzerkia konparatu dituzte bi lagunek gero: «Zineman leunagoa da lana, konkretuagoa; kontzentrazio handiagoa behar duzu, kontzentrazio osoa. Azken finean, beharbada, 40 hartualdi berdinean egin behar dituzu. Pazientzia ere behar da. Beste teknika mota bat da, baina ez zait iruditzen beste muturra denik antzerkiarekin konparatuz gero. Batak lagundu dezake bestea», esan dute.

Enrique Urbizuren ezaugarrien artean, hauxe nabarmendu dute: aktoreekin lan egiteko ohitura. Eta hori arrunt estimatzen dute: «Gero eta zuzendari gutxiagok ematen diote garrantzia interpretazioari». Ramon Barearen adibidea eman dute gero: «*Pecata Minuta*-n aktoreek jaso dute sari gehien, eta horren atzetik zuzendariaren lan izugarria dago».

Urbizuren ikasle izateak gerora eraginik izango duen galdetu diegu. Baietz diote, baina hori betiko kontua dela. «Beti gertatzen da hori. Irakasle bakoitzak bere era du zi-



nema ulertzeko. Ikasketa guztiak behar bezala betetzeko, zinema munduko zuzendari guztiekin lan egin behar genuke, hartara neultratasun osoz gure erdua lortzeko. Baina hori ezinezkoa da, eta orduan bakoitzari berea ateratzen diozu. Gustatzen zaizuna jaso eta zure ikuspuntua eratuz joan behar duzu», adierazi dute Ikernek eta Rosak.

Oinarriak sortuz

Xabier Erauskinen ere Urbizuren ikastaroan dihardu. Zaldibitarra da, eta, Donostian antzerkia ikasten aritu ostean, zinemas ere zertxobait ikastea erabaki du. «Interpretazio mailak oso ezberdinak dira alor bakoitzean, eta gaur edo bihar horrelako aukera bat izanez gero, nola aritu jakin nahiko nuke. Interpretazioa medio bakoitzera egokitzeko gai izan behar dugu», dio.

Xabierrekin batera Zigor Bilbao dago. Bermeotarra da bera, eta, antzerkiarekin ez bezala, zinemarekin kontaktua duen lehen aldia dela adierazi du. Biak ere iritzi berekoak dira etorkizunari buruz mintzatzean: «Euskal Herrian lan egitea zail samarra da. Ikusi besterik ez dago: aurten film bakar bat egingo da hemen. Ikastaroan egiten duguna, batez ere, esperientzia bat da: ikasi eta aurrera egiteko esperientzia». Dena den, haien ustez, zinemaren oinarriak eratzen ari dira Euskal Herrian: «Orain hemen ez dago aukerarik filmak euskaraz egiteko, baina oinarriak sortzen ari dira. Zuzendariak, aktoreak... pixkanaka-pixkanaka sortzen ari da mundu hori», esan dute, baikor.

Nork daki, akaso hemendik gutxira pantaila handian ikusiko ditugu gazte guzti horiek guztiak.

Enrique, nork

Enrique Urbizu zinema zuzendariak gazte-gaztetatik darabil kamera eskuan. Bilbotar honek 15 urte zituela grabatu zuen bere lehenengo filma; bere lagunak aktore gisa aritzeko konbentzitu eta formatu ez-profesionalarekin filmak egiteari ekin zion. Handik aurrera egindako lanak lehendabiziko haiek baino ezagunagoak dira. Lan horien artean daude ondokoak: *Tu novia está loca* Joaquín Trincadok zuzendua, *Todo por la pasta*, *Cómo ser infeliz y disfrutarlo*, *Cuernos de mujer*, *Cachito* film laburra eta *El hermano pequeño*, *Carvalho* telebistako seriaren lehen kapituluak besteak beste.

Enrique Urbizuk ez zuen aukerarik izan zinema zuzendaritzako eskolaren batera joateko, ezta zineman nola interpretatu ikastea ere. Hala ere, berak dakien guztia irakasteko apustua egin du, eta Bilbon dago orain, Juan Antxieta eskolan ikastaroa bat eskaintzen.